

## ELHUYAR TALDEAZ MINTZO

ELHUYAR TALDEA sortu zenetik ia hamar urte bete dira, eta garai egokia dela pentsatzen du gure irakurleei, taldearen zereginia nondik norakoa izan den adierazteko.

Jakina denez, ELHUYAR TALDEA, Injineru Eskolako ikasle-talde batez osatua izan zen hasieran; gauren helburu nagusia zera zen: EUSKARA, HIZKUNTZA TEKNIKO ETA ZIENTIFIKORA EGOKITZEA, hau da, gaur egungo mundu industrializatu honek eskatzen dituen beharrei egokiro erantzuteko, EUSKARA BEHAR DEN MAILARA JASOTZEA. Euskaraz, orain arte landu ez diren zenbait gai (gaurkoak, be-

rriak direlako) egoki landu ahal izateko, gure eguneroko hizkuntza berri beharra dago, beste hizkuntzek (Inglesak, Frantsesak, Gaztelarak, etabarrek) egiten duten bezala.

Helburu honekin, ELHUYAR TALDEKO partaideek lanari ekin zioten; hasieran itzulpenak egiten, gai tekniko-zientifikoak, euskaraz erabiltzeko trebetasuna hartzeko arazoak moz. Horrela zenbait gai itzuli ziren eta piskanaka-piskanaka itzulpenak eta lan originalak ere, prestatzen joan ziren.

Eskuartean zuten materiala ikusirik, lan hori plazaratzea egokia

izango zelakoan, ELHUVAR aldizkaria sortzea pentsatu zen eta horrela egin ere.

Aldizkaria argitaratzearekin zera lortu nahi izan zen: Elhuyar Taldeko partaideek egina zuten lana beste hainbat jenderi eskaintzea, beren prestakuntzarako lagungarria gertatuko zelakoan. Denborak, horrela izan dela, maiz erakutsi diqu.

Aldizkariari buruz landu duguna, irakurleak ongi ezagutzen duenez (hor daude honen lekuko Elhuyar aldizkariaren 31 aleak) ez gara hemen xehetasun gehiagotan sartuko.

ELHUVAR TALDEAK halaz ere, aldizkaria prestatzez aparte, beste hainbat eta hainbat ekin tza burutu ditu hamar urte hauetan eta horietaz mintzatu nahi dugu bereziki gaur hemen.

## lexikogintza

Gai tekniko-zientifikoak euskaraz adierazteko orduan, oztopo handiena lexikogintzan aurkitu genuen. Eritzi bateratuak erabiltzeko behar beharrezkoa da gai hauetaz lanean gabiltzan gehienok hitzarmen zabal batera hel-

tzea. Horrengatik bilketa lan bati ekin genion. Gure helburua zera zen: mende honetan argitaratu diren liburu, aldizkari, artikulu eta hiztegi gehienak aztertu eta haie-tatik zientzi eta tekniketarako interesgarriak ziren hitz guztiak jasotzea, hitz bakoitza nondik jasoa zen adieraziz.

Hustuketa-lan neketu bat egin genuen eta ordenadore bidez tratatu ondoren, txosten bat aurkeztu genion EUSKALTZAINDIARI 53.000 sarrerako hitz-bilduma batekin (ikus "Euskara" XXIV (2.aldia) (1979)-1 24 BILBO).

Hustuketa lan honetaz aparte beste hiztegi hauen prestakuntzan parte hartu dugu:

-UZEI-k argitaratutakoak:

Fisika Hiztegia  
Kimika Hiztegia

-UZEI-k argitaratuko dituenak

Teknologia Hiztegia  
Arkitektura Hiztegia  
Matematika Hiztegia

## ikastaldiak eta textu-lanketa

Taldearen helburu nagusiarekin jarraituz eta hizkuntza tekniko-zientifiko euskaraz behar

Elhuyar, 8, 2, 1982

bezala erabil zedin beharrezkoa ikusten zen zenbait alorretan saiatzeari. ELHUYAR TALDEAN, burutzen ari ginen lanarekin, euskarra tekniko-zientifikoaren erabilpena proposatzen genuen, baina jakin bagenekien hori horrela gerta zedin behar beharrezkoa zela irakaskuntza mundura hurbiltzea (maila horretatik hasi behar bait da gai hauetan ohitura izaten) alde batetik, irakaslego eskualdunari gai tekniko-zientifikoak lantzeko behar zuen laguntza eskainiz eta bestetik ikasleentzat, euskarazko testuak prestatuz.

Guzti hau gozotan izanik, beste bi sail berri lantzen hasi ginen:

- a) Irakasleak prestatzeko Ikastaldiak
- b) Textu-lanketa.

a) Ikastaldiak:

"Alfabetatze zientifikoaren ikastaldi didaktikoa" deitutako ikastaldiak antolatzen hasi ginen. Ikastaldi hauen helburua zera zen:

Euskaldunak izan eta beren kasgaiak euskaraz adierazi behar edo beharko) dituzten irakasleei laguntza bat eskaintzea, hartarako

hizkuntza aldetik aurki ditzaketen oztopo nagusiak nola gainditu erakusten ahaleginduz eta aldi berean, beren lanerako beharrezkoa izan dezaketen hainbat informazio eskaintzea (ikastextu hiztegi, kontsulta-liburu eta abarrei buruz).

Sei ikastaldi eginak ditugu jadanik; ikastaldi hauetan parte hartu duten irakasle-kopurua 350-400 bat lagunetakoa izan da, eta irakasle hauetariko asko ari dira gaur egun beren ikasgaiak euskaraz irakasten.

Ikastaldi hauetan landu diren gaiak honako hauek izan dira:

- Hizkuntza prestaketa
- Matematika
- Fisika
- Kimika
- Teknologia Elektrikoa
- Teknologia Mekanikoa
- Marrasketa Teknikoa
- Kontabilitatea
- Merkatal Kalkulua

b) Textu-lanketa:

Ezaguna da orain arte, eta oraindik ere, euskarazko testu liburuaren hutsunea nolakoa den. Arazo honetaz jabeturik eta zeuden hutsuneak ahalik eta ongien bete

tzeko asmoz, zientzi munduari ze  
gokion textugintza prestatzen  
hasi ginen, eta horrela urteetan  
zehar honako liburu hauek argi-  
taratu ditugu.

- Matematika O.H.O. 5.kurtsoa
- " O.H.O. 6.kurtsoa
- " O.H.O. 7.kurtsoa
- " O.H.O. 8.kurtsoa
  
- Natur Zientziak O.H.O. 6
- Matematika B.B.B. 1
- " B.B.B. 2
- " B.B.B. 3(1.zatia)
- Fisika B.B.B. 2
- Fisika B.B.B. 3
- Kimika B.B.B. 2
- Kimika B.B.B. 3
- Fisika-Kimika L.H. 1-1
- Teknologia Metala L.H.1-1
- " " L.H.1-2
- " " L.H.1-3
- Marrazketa Teknikoa L.H.1-1
- " " L.H.1-2
- " " L.H.1-3
- Kalkulu bankario eta  
Administratiboa L.H. 1-1
- Teknologia Elektrikoa L.H.1-1
- Logika Multzo Teoria(Unibertsitate mailakoa)
- Erlazio Matematikoak(Uniberts.)
- Ekonomiaren Hastapenak( " )
- Elektromagnetika I "
- " II "
- Algebra "
- Kalkulua "
- Fisika "

-212-

- Akustika (Unibertsitate maila)
- Optika " "

Egin den lana garrantzitsua izanik, ez dago halere, dena egina eta bide honi jarraituz oraintxe bukatzeaz ditugun liburuak honako hauek dira:

- Matematika L.H. 1-2
- Mekanika Lantegirako Ariketak
- Teknologia Elektrikoa L.H.1-1
- Makina Elektrikoak L.H.
- Automatismo Elektronikoak L.H.
- Oinarrizko Kontabilitatea L.H.1
- " " L.H.1
- Marematika B.B.B. 3(osatua)
- Matematika U.B.I.
- Fisika (U.B.I.)
- Kimika (U.B.I.)

Ikusten den bezala, lehen etapak piskanaka osatzen dihoaz, bai na Unibertsitate mundura iritsi arte, oraindik asko dago egiteko eta beraz lanean jarraitu behar da.

Aldizkariaren martxa jarraitu eta errespetatuz, azken bi sail hauetan ahalegindu gara bereziki azken hiru urteetan eta horrela jarraitzeko asmoa dugu.

## mintegiak

Ikastaldi eta textugintzare

kin batera ELHUYAR TALDEAK Euskal Herriko Ikastetxe desberdinetako irakasleekin Mintegi batzuk gertatu ditu, hala nola:

- Kontabilitate-mintegia
- Fisika-Kimika mintegia
- Matematika mintegia
- Terminologiari buruzko mintegia.

### itzulpen teknikoak

Aipatutako ekintzez aparte, zenbait enpresa eta elkarteek eskaturik, hainbat itzulpen tekniko burutu ditugu, hala nola:

- Laminaciones de Lesaca S.A.-ren urteroko Hitzarmen Kolektibo Sindikala.
- Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintzialaren zenbait liburuka, etab.

Goian aipatutakoak muestribat besterik ez dira, itzulpenen zerrenda osoa adieraztea luze joko bait luke eta ez dugu uste pena merezi duenik.

### adako euskal unibertsitatea

Urtero parte hartu ohi dugu, antolakuntzan, liburuak prestatuz eta bertan klaseak emanez.

Ekintza guzti hauek burutu badira, talde zabal baten lan esker gari sor zaio. Hasieran Injineru ikasle talde batek sortu bazuen ELHUYAR, denboran zehar jende berriak indartu du hasierako talde hura eta honela gaur egun, Injenerutzan Doktore eta lizentziatu askoren ondoan, Kimikari, Fisikari, Matematikari, Ekonomilari, Abogatu eta abar luze batek osatzen dute taldea. Hauekin ezin ahaztu ditugu, taldekoak izan gabe, laguntzaile gisa gurekin lan egiten duten hainbat pertsona.

ELHUYAR KULTUR ELKARTEA bere sorreratik bertatik talde ireki bat izan da, euskara, maila tekniko-zientifikora jasotzeko egin behar den esfortzuan parte hartu nahia duen edonorentzat. Horrela, hamar urte hauetan, pertsona asko izan dira gurekin kolaboratu dutenak, bai taldeko partaide izanez, bai noiz behinkako laguntza eskainiz.

Jende berria gureganatzeko orduan, oztopo handienetakoa ELHUYAR-en bulegoa eta biltokia Donostiant izatean datza. Hau Donostiarrentza eta Donostia inguruan bizi den jendearentzat oso lagungarria bada ere, probintziako jendea gureganatzeko oztopo handia bihurtu zaigu.

Aspalditik konpondu nahi izan dugu arazo hau, baina arrazoi desberdinengatik hori ez da posible izan orain hilabete gutxirarte.

1.981 urtean probintzi mailan geroz eta eskaera gehiago sortu ziren eta konponbide bat lortu nahian Arrasate inguruko irakasle-talde batekin biltzen hasi ginen. Elkarrizketa hauen helburua zera zen: ELHUYAR antzeko talde berri bat sortzea Arrasate inguruan, bailara horretako jendearen eskaerei hobeki erantzun ahal izateko. Horretarako gure azpiegitura zerbitzu osoa eskaini genien.

Bilkura hauen ondorio bezala, pozik esan genezake 1981ko Urriaren hasieratik ELHUYAR bigarren talde bat sortua dela Arrasaten. Talde berri hau FAUSTO ELHUYAR TALDEA da eta bere helburuak EL-

HUYAR-enak berak dira.

Bukatzeko, berriro azpimarratu nahi dugu, ELHUYAR KULTUR ELKARTFA irekita dagoela, euskara, zientzi-teknetan landu nahi duen edonorentzat. Burutu nahi eta behar den lana handia da oraindik ere, eta guztion laguntza beharrezkoa izango da, beraz, Elhuyar aldizkariko irakurle, gai hauetaz zerbait aporteratu badezakezu, dei diezaguzu eta gurekin kontaktoan jarri, gure bulegora deituz (42.99.45-Donostia) goizez 8etatik 2etara edota larunbateko bilkurara azalduz, arratsaldez 4<sup>1/2</sup>etatik aurrera.

Zihur egon zaitez zure laguntza oso baliotsua gertatuko zaitzula; guk behintzat, pozik hartuko genuke zure laguntza. Laister arte bada, agur